

{ datorrena } Iñaki SOTO

Hitzak berreskuratu eta eztabaidaren maila hobetu

Palestinako genozidioaren testuinguruan, gerraren nazioarteko arauak eta giza eskubideek eztabaida-esparru emankorra eskaintzen dute. Jakina ez dutela funtzionatzen, ikusten ari gara. Zergatik, ordea? Okerrak direlako edo egiturek eta interesek bideraezin bihurtzen dituztelako? Arau horiek zentzu moral sakona dute, baina baita kudeaketa politiko zaila ere. Sinplifikatzea ez da bidea.

Halere, Palestinako egoera hain da basatia, ezen zenbait eztabaida argitzeko balio baitu. Adibidez, desitxuratu ditugun hitzen zentzua berreskuratzeko balio dezake. Adibidez, genozidioa. Eztabaida desenfokatuerei argi zuzena eman diezaieke. Adibidez, kondenari eta biktimei buruz. Hitzak beti dira garrantzitsuak.

GERRAKO KRIMENEZ HARRO

Gerra honen eta beste batzuen arteko desberdintasun nagusia da Israel ez dela nazioarteko arauen urraketa ezkutatzeko ari. Harrigarriro, bozeramailak beren ekintzak aldarrikatzen dituzte, kriminalak izan arren. Orain arteko zigorgabetasunak eta biktimen naturalen ikusmoldeak arrazoia kamustu die.

APARTHEIDAREN BIGARREN KASUA HISTORIAN

Genozidioa eta gerra-krimenak Gazan egiaztatzen badira, gainerako lurralde okupatuetan eta Israelen frogatzen da apartheid-a. Juduen lehentasuna eta palestinarren diskriminazioa dira Israelgo Estatuaren printzipio gidariak. Ondorioz, boikota nahitaezkoa da eta zigorrak egon beharko dira. Ez da erraza izango.

GENOZIDIOA HITZ POTOLOA DA, BAINA BEHARREZKOA

Nazioarteko arauen arabera, ez dago eztabaidarik: Israel genozidioa egiten ari da Palestinan. NBEko goi-ordetzakiek esan dute eta ikertzaileek azaldu dute.

«Genozidio» hitzak uneko larritasuna ulertzen, kontzientziak pizten eta jarrera hartzen laguntzen du.

GERRA

«Bidezko gerra» erabili izan dute pentsalari juduek genozidioa justifikatzeko. Michael Walzer-ek tinko darrai, eta orain bere ekarpen bakarra bakezaletasunaren kritika da. Halere, beren arteko eztabaidak interesgarriak dira, "Dissent"-en edo "Jewish Currents"-en, adibidez. Marjinalak dira, baina argiak dira.

NAZIAK NONAHI

Izar hori bat paparrean jarrita, Gilad Erdanen enbaxadorearen parodiak ezinegona sortu du Holokaustoa-
ren biktimen artean. Adibidez, Dani Dayan-ek, Yad

«Genozidio» hitza erabiltzeak une honetako larritasuna ulertzen, kontzientziak pizten eta Palestinaren aldeko jarrera hartzen laguntzen du

Vashem Museoko zuzendariak, gaitzetsi egin du. «Nazi» hitzaren erabileran moratoria batek onura intelektual eta politikoak izan ditzake.

BAHITUAK (NORBERAK BERE BURUARI JARRITAKO TRANPETAN)

Nola esaten da «mas papista que el Papa» euskaraz? Eta arabieraz? Txorakerietarako tarterik balute, zenbait harritu egingo lirake mendebaldetik jasotzen dituzten babes idazkiekin, ISISetik hurbilago baitaude islam politikoaren edozein erakundetatik baino. Ne-goziazioa egongo da, eta defendatu egin behar da.

Hitzen erabilera doiak, nire ustez, logika militanteen eta emantzipatzaileen mesedetan eragiten du. •